

**GOITIA TA ARROLA'TAR IZASKUN ZURE
JAUNARTZEAREN OMENEZ**



Egun aundi bat oroitzen dogu
zure bizitz kutunean,
lur onetara begiraturik
sendiko maitasunean;
aiton amomak eta guraso
maitzeko lorartean,
usain gozoa dauka larrosak
irriparrez biotzean.

Jakitura gauz aundia da
buru sotillen argia,
zeru ta lurak maitatzen dabe
neskatxo lore garbia;
izadi dana begira dago
miretsiz zure bizia,
jakin egizu, gaur, nor zaran zu,
aingeruzko irudia.

Gaurko egite arrigarria
azaldu nai dot itzetan,
sinismen barik ez dot ulertzen
nor dagon ogi zuritan;

zeruetako lagun guztien
poza zan zorionetan,
Egille Bera etorri jatsu
maitezko besarkadetan.

Izaskun maite, oroitu zaite
zure bizitza guztian,
Egillearen erruki dana
artu dozu biotzian;
zure izate eta bizia
daukazu Aitarenian,
egite onez landu egizu
zure baratza zurian.

Egilleagaz alkartu zara,
eztegurik aundiena,
izar sorlea etorri jatsu
argituten bizi dana;
ontasunaren jakitura
da zure maite kutuna,
urrezko kateiz zaindu egizu
gaur artu dozun laztana.

AITITA BIAI

Kanu ta Martin gizon trebeak,
solo-artean jaiokak,
lengo aldian beien arduraz,
gaur, aurrez, lora zuriak;
Zuen semien izarrak dira,
ain dira eder maitiak!
euren antzeko bitxi politik
ez dabe ikusten begiak.

PAULIN

AMODIO BAKANA

Zenbat ume, basterretan, izarra negarrez;
begi uztuetan kiliz gose aramua.
Ume errukarri! Euren amets-eremua
bete-beterik daukoe larrosa igarrez.

Gosea dabilkoe itxaropenak janez,
eska bilduetan —esnerik bako kaikua—
ezer ez besterik: etsipenaren zukua,
apar mingotsduna, ertz oroetatik ganez.

Tristura azalez bildutako azurtxoak,
gosearen asez puztutako atabalak,
ttuntun da ttuntun akelarre zorabioa.

Goseari matralletan mosuka gaxoak.
Bai sendoak alkar maitatzeko egiñalak!
Nork ausiko euren arteko amodioa?

DOANA DOALA

Aldi joanaren ezea
zimeldua ba da aspaldi
—udabarri txorta usaitsu,
lillura zoroei opari—.

Ba daroat eiorik ainbat
ogiz beteko uda ori.
Udagoiengo dolaretan
ainbat maats ta ardo gorri.

Oroimenaren bidertzean
joanari dei alperreko.
Gaurko aize kantari onek
ez dau geiago abesturko.

Baña eta zeren ardura?
Txoriak eta sagardiak
abestuko. Adin barri bat
ba dakarst niri bizi naiak.

Neure esku bi batuetan
baitu daroat bizi poz au,
atson gozodun lore eder.
Beronek ni koroituko nau.

A. BIDAGUREN